

Hasi da espedizioa

Lau gazte sakandar Euskarabenturan parte hartzen ari dira / 2-3



Eseki enpresak hiru hamarkada bete ditu eta aurreikuspen onak ditu etorkizunerako / 6

Uztailaren 5ean hasiko dira Urdiainen San Pedro festak, eta azkenera arte ospatuko dituzte / 8-9

Bihar Sakanako Haur Triatloia jokatuko da Dantzalekun. 50 triatleta espero dituzte Altsasun / 10

Ixabel Agirresarobek 'Geuretik sortuak' programaren egonaldia Ziordian egin zuen / 15

SINADURAK



SAKANAKO
PREBENTZIO
ZERBITZUAK / 4



ERKUDEN
ALDASORO
ERREA / 4

IRATI
EIZAGIRRE
SAGASTIBELTZA
/ 13

"Esperientzia ahaztezina izatea espero dugu"

IKER, REDA, LUZIA ETA ANE JZIOQUITARRAK

Uztailaren 1ean abiatu ziren lau gazte sakandarrak Euskarabenturan. 30 egunetan Euskal Herria zeharkatuko dute, eta lagun berriak egingo dituzte

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Uztailaren 1ean, asteartean, abiatu zen Euskarabentura espedizioa Atharratzetik, Zuberoan, eta hilaren 31n Getxon, Bizkaian, amaituko da. Tartean 27 herritan pasako dute gaua aurtengo edizioan parte hartzen duten 126 gazte jzioquitarrak. Euskal Herri osoko 16 eta 17 urteko gazteak dira; gaur, uztailak 4, esaterako, Pagolan esnatu dira eta Lartzabalera joango dira, eta bihar, uztailak 5, Lartzabaletik Donibane Garaziko ibilbidea egingen dute. 30 egunez Euskal Herria zeharkatuko dute. Parte hartu duten gazteen artean lau sakandar daude: Ane Mendinueta arbi-zuarra, Iker Martinez etxarriarra, Reda Naciri bakai-kuarra eta Luzia Andueza altsasuarra. Begiraleen taldean (xerpak deitutakoak) ere Sakanako bi gazte daude, Maialen Biain etxarriarra eta Aimar Vicente olaztiarra. Espedizioa hasi aurretik azken prestaketekin ari ziren lau gazteak. Bizitzan behin bizi daitekeen esperientzia da.

Zer da Euskarabentura?

Reda: 30 eguneko espedizio bat non denbora guztian euskaraz hitz egingen den.

Eta zer egingen da 30 egun horietan?

Ane: Euskal Herria zeharkatuko dugu.

R. Goizean hamabost kilometro inguruko ibilaldia egingo dugu, eta gero arratsaldean ekintzak egingo ditugu. Helburuetako bat jende berria ezagutzea da.

Nola ezagutu zenuten Euskarabentura?

A. Luzia eta bion ahizpak duela bi urte joan ziren, eta hortik niri gogo handia sartu zitzaidan. Ahizpak esan zuen esperientzia ahaztezina dela.

Luzia: Niri ere inbidia eman zidan kontatzen zutenarekin eta ikusten genuenarekin.

Iker: Institutura etorri ziren eta Euskarabentura aurkezteko hitzaldi bat egin zuten.

R. Nire kuadrillako biren arre-bak ere joan ziren duela bi urte, eta bueltatzerakoan esperientzia kontatu zuten, eta animatu nintzen.

Zer egin behar izan zenuten parte hartzeko?

A. Lan handia.

R. Lau proiektu aukeratzeko zeuden; nik adibidez beldurrezko istorio bat egin nuen.

A. Baita nik ere.

L. Nik ere beldurrezko istorio bat egin nuen, eta gero lana aurkezteko marrazki bat egin nuen; gero lana testu batean azaldu behar zen.

I. Nik beldurrezko beste istorio bat idatzi nuen.

Zenbat denbora izan zenuten proiektua egiteko?

R. Ni hasi nintzen entregatu baino bi aste lehenago.

A. Egia esan, denbora bazegoen, baina uzten joaten zara eta azterketekin eta abarrekin azken momentuan egingen dugu.

L. Pentsatzen duzu: "Egingo dut". Baina azkenean data iristen da...

Zer sentitu zenuten aukeratuak izan zinetela jakin zenuenentzako?

A. Poztasun handia.

I. Uste nuen ez nindutela hartu behar, orduan oso pozik jarri nintzen.

R. Nik berdin; uste nuen ez nindutela hartuko; korreo bat iritsi zitzaidan, titulua ikusi nuen, eta orduan ikusi nuen:

"Zorionak hautatua izan zara" jartzen zuela. Oso pozik jarri nintzen.

Espero zenuten?

Ez.

A. Jende askok ematen du izena, eta ez duzu espero zu hautatua izatea. Ez duzu sinisten.

Zer espero duzue?

R. Lagun berriak ezagutzea eta esperientzia on bat bizitzea.

A. Eta euskara gure egunerokotasunean gehiago erabiltzea. Euskalki berriak ezagutuko ditugu; nik uste oso aberasgarria dela beste tokitako jendea ezagutzea, badirelako politikoki eta abarreatatik beste egoera zailetan daudenak.

K. Beroa pasatzea espero dut ere; nik ez dut beroa aguantatzen...

Zer eraman behar duzue?

I. Esan digute ez eramateko ezer; lehenengo egunean, Berriozarren, autobusa hartuko dugu eta bertan materiala emango digute: lau kamiseta, jertsea eta abar. Hilabete bat pasa behar dugu arropa horrekin. Egunean zehar, ibilaldian, motxila txiki bat eramango dugu, eta lo zakuaren esterillaren eta abarren motxila handiak furgoneta batean eramango dituzte.

Non egingo duzue lo?

I. Frontoietan, eskoletan...

A. Zaila izango da lurrean lo egitea...

Noizbait horrelakoren batean edo kanpalekuren batean parte hartu duzue?

Ez.

Eta etxetik kanpo egon zarete?

I. Reda eta biok Suedian egon ginen aste batez. Hasieran dena oso desberdina izan zen; ohituta gaude herrian gure gurasoekin eta lagunekin egotera, eta aldatzea oso desberdina da.


L. Aste bat egon ginen kanpoan ere.

A. Kanpaldi batean egon nintzen eta aste bat luze egin zitzaidan...

Aurretik prestatu zarete?

R. Egia esan, ez naiz asko prestatu, baina urte osoan zehar kirola egin dut. Ez dut uste oso zaila egingo zaidanik.

I. Gutxi prestatu naiz. Mendira joaten naiz, baina gustatzen



"LEKU ASKO IKUSI BEHAR DITUGU, ETA JENDE ASKO EZAGUTUKO DUGU"

IKER MARTINEZ, ETXARRI ARANATZ



"KONTATZEKO ETA GOGORATZEKO ESPERIENTZIA IZATEA ESPERO DUT"

REDA NACIRI, BAKAIKU

zaidalako; ibiltzera edo txakurrarekin joaten naiz, baina aisialdi moduan, ez entrenatzen.

L. Urtean zehar kirola egin dut, eta azken hilabetean mendira gehiagotan joan naiz; bestela oso gogorra egingo zait.

A. Ni ere korrika egitera joan naiz, baina nire kabuz, ez entrenatzen helburuarekin.

R. Espedizioa hasi aurretik informazioan jartzen zutenaren arabera espedizio txiki bat egin behar dugu mendian hiru edo lau orduz, ohitzeko.

Ibilbidea begiratu duzue? Zer iruditzen zaizue?

I. Egia esan, nik ez dut begiratu. Sorpresa izango da.

A. Adibidez, egun batean sanferminetara joango gara.

**TALLERES
GOÑI
TAILERRAK**

- Kristal aldaketak
- Lanta berritzeak
- Adeitasun autoa doan
- Barruko eta kanpoko garbiketa

Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Iker Martinez etxarriarra, Reda Naciri bakaikuarra, Luzia Andueza altsasuarra eta Ane Mendinueta arbizuarra.



"EUSKARABENTURAN ESPERIENTZIA ON BAT BIZI NAHI DUT"

LUZIA ANDUEZA, ALTSASU



"POZTASUN HANDIA SENTITU NUEN HAUTATUA NINTZELA JAKIN NUENEAN"

ANE MENDINUETA, ARBIZU

L. Atharratzen hasiko gara, Iparralden.

R. Eta Getxon bukatuko dugu. **Aurretik pasako zaretzen herriak ezagutzen zenituzten?**

L. Oso gutxi.

R. Bakarrik Donostia, Gasteiz, Iruñea...

Eta aurretik bisitatu nahi zenuten toki gogorik dituzue?

R. Nik Baiona.

A. Nik ez dut.

L. Nik ezta.

Etaparen bat bereziki egin nahi duzuen?

A. Nik Amaiurkoa; ez naiz inoiz egon eta joan nahi dut.

Aurretik elkar ezagutzen zenuten? Bai; institututik.

R. Monitore batzuk ezagutzen ditut ere; haietako bat euskara irakaslearen semea dela uste dut.

L. Eta beste bat gure ahizpekin espedizioan egondako bat da, eta orain monitorea da.

Eta parte harutko duten beste gazteren bat ezagutzen duzue?

Ez.

A. Hasieran beldur pixka bat ematen du jendea ez ezagutzea, baina azkenean mundu guztia

goaz bakarrik edo ez dugula elkar ezagutzen; nik uste dut ez dugula arazo handirik izan go harremantzeko.

Zer ekarri nahi duzue esperientzia honetatik bueltan?

R. Kontatzeko eta gogoratzeko esperientzia on bat.

I. Leku asko ikusi behar ditugu, eta jende asko ezagutu behar dugu. Behin bakarrik parte har dezakezu.

A. Esperientzia ahaztezin bat izatea.

L. Esperientzia ona bizitzea nahi dut.

Euskarabentura 2025

Guztira 126 gaztek parte hartzen ari dira Euskarabenturan. Errealitate linguistiko, sozial, ekonomiko eta kultural anitzekoak dira. Herrialdeka Bizkaiko 43, Gipuzkoako 26, Nafarroa Garaiko 24 (tartean lau sakandar, Arabako hamahiru, Lapurdiko hamahiru, Baxe Nafarroako bost eta Zuberoako bi gazte izanen dira. Jzioquitarrek kamiseta laranja janzten dute. Gazteekin batera 28 lagunek osatutako lan talde urdina joaten da: bi koordinatzaile, hamabi xerpa edo begirale, bi xerpa laguntzaile, bi xerpa buru, bi mediku, hiru erizain, bi gidari, argazkilari bat, kameralari bat eta komunikazio arduradun bat.

EiTBrekin egindako hitzarmen bati esker, Primeran plataforman lau ikus-entzun pieza ikusteko aukera izango da.

Guztira, 27 herritan pasako dute gaua. Uztailaren 1ean, asteartean, Atharratzen elkartu ziren gazteak, eta bertan lehenengo gaua pasa ondoren Maulerako bidea hartu zuten; atzo, uztailak 3, Pagolara iritsi ziren eta gaur, uztailak 4, Pagolatik Lartzabalera joango dira. Bihar, uztailak 5, Lartzabaletik Donibane Garazira joango dira, eta bertan gaua pasa ondoren, uztailaren 6an autobusa hartuko dute Orreagara joateko. Bertatik, Auritzera joango dira eta bertan gaua



pasako dute. Auritzetik Abaurregainara joango dira, aurtan lehenengo aldiz Euskarabenturan, eta uztailaren 8an Iruñera iritsiko dira, San Fermin festetan bete-betean egongo dena. Ondoren, Añana,

Argantzun, Gasteiz, Gasteiz, Izarra, Elosu, Araia, Zerain, Tolosa, Lesaka, Urdazubi, Baiona, Urruñia, Donostia, Zarautz, Lekeitio, Aulesti, Gernika, Bermeo, Bilbo eta Getxo.



ASTEKOA

ERKUDEN ALDASORO ERREA

Ez gara hain desberdinak

Marjane Satrapi komikilari irandarrak –Persepolis komiki ezagunaren egileak– idatzi zuen benetan begiratzeko hasiz gero mundua ez dagoela ekialde eta mendebaldearen artean banaturik. Elkarrekin hitz egiten hasita hangoek eta hemengoek primeran ulertuko genukeela elkar, nahiz eta aurretik elkar ezagutu ez.

Gu –herritarren– eta geure gobernuen arteko desberdintasunak, handiagoak direla bi aldeetako herritarren artekoak baino. Eta, zorionez edo zoritxarrez, gobernuak (“gure eta zuen gobernuak”) oso antzekoak direla.

Marjane bere jaioterriaz ari zen, Irani buruz, gu hori aipatzean, eta amerikarrei, Amerikako Estatu Batuetako jendeei, zuzentzen zizkien bere hitzak. Azken asteotako gertaerei so egiten badiegu, Satrapiren hitzek are zentzu handiagoa hartzen dute.

Gure erabakimenetik at dauden zirkunstantzia askoren menpe gaude, gehiegizko botere eta erabakien menpe, baina badugu hauturik egiteko beta, hain txiki ez den gure txikian.

“AHALEGIN GAITEZKE GU IZAN GINTEZKEEN BESTE HORIEK EZAGUTZEN”

Adibidez, ahaletin gaitezke gu izan gintezkeen beste horiek ezagutzen. Kontzientzia eta jakin-mina tarte batez lanean jarri, eta beste horien inguruan irakurri, entzun, filmak ikusi, haien musika aditu... Beste

horien bertsoak eta minak ezagutu, haien eguneroko erronkak, eta jasaten dituzten gehiegikeriak hauteman. Azken finean, distantziak laburtu gu eta haien artean. Sustrai sakonak dituzten bi zuhaitz bezala izan, eta bie gureek (agintzen digutenek) adarrak moztzen badizkigute sustraien bidez elkar bilatu, eta elkarri lotu. Ulertu, gizatasuna partekatzen dugula, eta ez gara hain desberdinak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Uda eta gure aisialdia

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Uda iristearekin batera, inguruko prebentzio-programak, gure lana, errealitate horretara egokitzen dugu, hau da, aisialdi gehiago izatera, gure herrietako eta inguruko jaietara, oporretara... Horrek guztiak aukera gehiago ematen dizkigu gozatzeko, erlaxatzeko, lagunekin harremanak izateko, errutinatik ateratzeko eta gauza desberdinak egiteko. Hori oso garrantzitsua da gure osasun mentalaren onerako, betiere gure denbora librean alkoholaren edota beste substantzia batzuen kontsumoarekin lotuta gozatzera mugatzen ez badugu edo etengabe mugikorren edo sare sozialen zain ez bagaude... Garrantzitsua da esatea gure

osasun mentalean eragina daukala, baina modu negatiboan.

Bi gai horiek (substantzien kontsumoa, alkohola barne, eta sare sozialen ohiko kontsumoa, zorizko jokoekin batera) mendekotasun larriari lotutako osasun arazoak sor ditzakete. Hori ez dugu ikusten sintoma kezkarriak dauden arte, eta prebentzioak zer egin gutxi duen arte; horregatik, garrantzitsua da horretan eragitea. Modu osasungarrian gozatzeko modu asko daude, eta udak aukera asko ematen dizkigu; garrantzitsua da sormena lantzea eta gure aisialdiaren zati handi bat alkohol eta/edo beste substantzia batzuk kontsumitzen igarotzera eramaten gaituzten

errutinetatik irtetea, sarera etengabe konektatuta eta gure ingurune hurbiletik deskonektatuta egon behar badugu. Gure aisialdia nola igarotzen dugun eta denbora hori substantzien kontsumoarekin eta/edo sareko gailuekin edo jolas-makinekin lotuta dagoen hausnartzea, aisialdi mota horren alternatibak planteatu beharko genituzke.

Prebentzio-programetan, gai horiek guztiak lantzeko sentsibilizazioa lantzen dugu, kanpainen bidez eta gure aisialdiari buruz egiten dugun erabilera zalantzan jarriz eta hausnartuz. Ziur gaude egiten dugun horretan pentsatuta geure burua zaintzen inbertitu dezakegula, eta, jakina, uda ona modu osasungarriagoan igaro.



OBJEKTIBOTIK

San Sebastian ermitaren maketa

Garai bateko argindar sareko poste zahar baten gainean dago jarrita Olatzagutiko San Sebastian ermitaren maketa. Olatzagutia eta Ziordia lotzen dituen dermioko bidean paseatzen dabilzanak oraindik ez dute txoririk ikusi bertan sartzen edo ateratzen. Denbora eman beharko zaie.


www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
Maider Perkaz Urdiain
maider@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearna Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Arbasoek utzitako ondarea bizirik mantentzeko

Iturmendiko basoan historia eta natura elkarrekin bizi dira. Nicolas Arbizu Gabirondok urteak daramatza basoan lanean. Gaur egun, herriaren ondare arkeologiko eta historikoa berreskuratzeko lan handia egiten ari da

Ahiletz Nuñez Galartza ITURMENDI

Azkenaldian Nicolas Arbizu Gabirondo "Baxaleko txabola" (basoaldeko txabola) berritzen ibili da. Txabola horretan garai batean herritarrek aterpea hartzen zuten. Arbizu gazte zela teilatua eta egitura sendoa zituen. Etxolaren kokapena ez da kasualitatea: duela mende batzuk, bertatik igarotzen zen "ferra-galtzada" ospetsua, Lizarratik itsasoraino doana, harrigileen bidea hain zuzen ere. Iturmendiko etxolek, garai batean beste garrantzia eta eginkizun bat zuten ere, aduana antzeko sistema bat ezarria zen bertan, galtzadaren bidez mugitzen ziren ondasunak kontrolatzeko. "Tabakoaren zaindari" deitutako zaintzaileek tabakoa eta beste salgaia garrantzitsuak zelatatu eta zaintzen zituzten, balearen olio edo Ameriketatik zetorren kafea, espezieak eta kakaoa bezalako produktuak. Herritarren bizitza eta historia lotzen dira. Bertatik igarotzen ziren barrualdetik itsasorantz zihoazen produktuak eta itsasotik bueltan etortzen zirenak ere.

Baxaleko txabola hasiera batean guardia etxola izan zitekeen, eta Arbizu berreskuratu eta berritzen ari den elementu historiko eta arkitektoniko garrantzitsua da, herriaren memoria bizirik mantentzeko ezinbesteko pieza.

Auntzetxea: harriek kontatutako historia

Iturmendiko mendialdean, historia harri artean gordetzen da. Auntzetxea, izen xume bezain esanguratsua duen eraikina, duela gutxi arte lurpean eta ahaztuta egon den altxorra da. Gaur egun, Arbizu da berreskurapen lan horren arduradun nagusia. Haren eskutik, herri memoria eta ondare arkitektonikoa berreskuratzeko lan isil baina sendo bat martxan jarri da.



Nicolas Arbizu Gabirondo auntzetxean. AHILETZ NUÑEZ GALARTZA

"ARBASOAK BASOAN BIZI ZIREN: EGURRA ETA IKATZA SORTU, ANIMALIAK ZAINDU ETA EZKURRAK JASO"

"Lehen guztia botata zegoen", dio Arbizuk, txabolaren aurrean harriak berriz jartzen dituen bitartean. "Orain, horma batzuk eta biga bat geratzen dira, baina ez da gutxi". Auntzetxea ez zen soilik ikuilua, Arbizuren ustez; bestelako erabilerak izan zituen, eta bere kokalekuak eta egiturak ere horretara bultzatzen dute.

Hormek eta lurra kontatzen dute historia. Gertu, 4x4 metroko egitura borobil bat aurkitu dute, Erdi Arokoa izan liteke. "Artzain bat bizi zitekeen hemen metro gutxira, eta horrek erakusten du erabilera estrategikoago bat zuela lekuak". Aparte, harri landuak topatu ditu; horrek iraganeko funtzio erlijioso edo komunitario bat iradokitzen du.

Teila bakarreko txabola

Iturmendiko mendietan, etxolak ohikoak dira, baina auntzetxea

berezia da: teilak dituen bakarra da. "Urtez urte berreskuratzen joan gara, eta sekulako lana eskatzen du", aitortu du Arbizuk. Bere ustez, benetako zorua metro erdi lurperatuta egon liteke, eta lurra kentzen doazen heinean, gauza berriak agertzen dira. "Nik harriak berriz jartzen ditut, mantentze-lan bat egon dadin". Bere aurretik ere, beste bizilagun bat teilak pilatzen hasi zen eta gure protagonistak jarraipen sendoa eman dio lanari gerora.

Eraikinaren tamaina ere aipagarria da: 200 metro karratu ingurukoa izan liteke, eta horrek ere erakusten du erabilera soila baino konplexuagoa izan zezakeela. "Etxekomun modukoa izan zitekeen, edo herrixka baten bihotza", dio Arbizuk. Hipotesi ausartak dira, baina guztiak zentzuzkoak, eraikinaren egitura, tamaina eta kokalekua kontuan hartuta.

Erligioaren itzala eta erabilera askotarikoak

Beste arrasto deigarri bat: auntzetxea sortua da ekialdetik mendebalderako norabidean, ermiten antzera. "Beste eraikinek ez dute forma zehatzik, baina

honek badu ordena bat", azaldu du. Hori kontuan hartuta, ez da baztertzen eraikinak zentzu sakratu izatea.

Mendiak, gaur egun paseatzeko eta egurra hartzeko erabiltzen dugun arren, garai batean bizitzeko espazioak ziren. "Gure arbasoek hemen egiten zuten bizitza: egurra eta ikatza sortu, animaliak zaindu eta ezkurak bildu", dio Arbizuk. "Hori da gure ondare historikoa, eta horregatik ari gara berreskuratzen".

Gogo eta gorputz lana

Astean behin edo bitan igotzen da iturmendiara auntzetxera, eta hiru ordu ematen ditu lanean. "Nire gimnasioa dela esan genezake, kar-kar," dio umorez. Lana fisikoa bezain mentala da; harriak berriz jartzeak eta historia berriazteak, hitzak eta ideiak

ematen dizkiolako. Arbizuk esaten duenez, "egiten dudan lanak idazteko inspiratzen nau. Harri bakoitzak istorio bat kontatzen du", dio. Eta istorio horiek dira, hain zuzen, Iturmendiren eta herri horren historia josten duten haria. Auntzetxea, isil-isilik, gure arbasoen aztarna gordetzen duen lekuko sendoa da, eta Arbizu bezalako herritarrei esker, berriz ari da bizitzen.

Iturmendiko herriko ondarea eta historia partekatzen eta berreskuratzen ibili izan da urte askoz, erromatar galtzada eta herriko toponimia berreskuratzen aitzindari izan da eta basoak kontatzen duenari ahotsa ematen ibili izan da. Horrek Arbizu asebetetzen du, herriarekiko harremana sustatzen, kultura zabaltzen eta hurrengo belaunaldiei herriak zuten historia ezagutarazten.



UZTAILAK 7 - 11

- 10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15 Pentsaren azalak
- 10:20 Albisteak eta kirolak
- 10:30 Hizketan
- 11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin
- 14:00 Errepikapena

San Ferminak

Uztailak 6
10:00-12:00
Txupinazoa

Egunero
12:00-14:00
San Fermintza

Uztailak 14
Erraldioen agurra
zuzenean



On line

guaixe.eus/irratia/zuzenean





Urteurren ospakizunean elkartu ziren guztien talde argazkia. UTZITAKOIA

"Gure filosofia da bertako jendea kontratatzea"

JON IRIGOIEN FRESNEDA ESEKIKO INGENIARITZA SAILEKO ARDURADUNA

Udako aurreneko eguna aukeratu zuen Esekik bere 30. urteurrena ospatzeko. Enpresaren gaur egungo jardunaren berri jaso dugu

A.A.I. ETXARRI ARANATZ

Bide horren azken hamar urteetan parte hartu izan du Jon Irigoien Fresnedak. "30 urte asko dira eta espero dut beste 30 edo gehiago hor egotea", esan du.

Zeinek sortu zuen enpresa?

Sei bazkidek. Denak ezagunak eta lagunak ziren eta indarrak batu eta enpresa sortzea erabaki zuten. Lankideak enpresaren eta haien lanaren jabe izateko asmoz, lan sozietate anonimo gisa sortu zuten.

Zertan hasi zen lanean Eseki?

Enpresetan mantentze lanak eta instalazio elektrikoak egiten hasi ziren. Premia handia zegoen orduan eta gaur egun ere bai. Sakana, Iruñerriko, Lizarraldeko, Gipuzkoako eta Arabako bezeroak ditugu. Gehienbat enpresendako lan egiten dugu. Energia berriztagarriekin orain zerbait egiten dugu etxeetan.

Sail gehiago dituzue?

Ingeniaritza saila sortu zen eta automatizazioa, robotika eta homologazioak egiten hasi ginen 2016an; CE markatzea eta

1215/1997 Errege Dekretura egokitzea. Lehenengo ikasi, ondoren departamendua sortu eta lanak egiten hasteko. Ingeniaritzako gure proiektuetarako CE markatzeak behar genituen. Europako zuzentarauak esaten duen moduan eginda dagoela ziurtatzen duen ziurtagiria da. Makinek bete beharreko lege pila daude. Beste ingeniariak batzuetarako markatzea eta dokumentazioa sortzen dugu.

Automatizazioa gero eta handiagoa da enpresetan, ezta?

Bai. Guk automatizazio txikietan sartzen gara, automoziorako eta halako sektoreetarako linea handi horiek ez ditugu egiten. Gehienbat paletizazioa eta ekoizpen katean gauzak toki batetik bestera eramaten duten roboten proiektuekin aritzen gara. Dzenteko eskaera dago. Azken urtetan lankide pila sartu ditugu. Pausoz pauso goaz, pixkanaka, gure filosofia baita bertako jendea kontratatzea, lanpostu egonkor bat sortzea eta bertako gazteak enpresan sartzea.

Beste ingeniari zuzendako lan egitean harremanak ere sortuko dira, ezta?

Hala da. Harreman asko ditugu, eta horietatik lanak ateratzen dira. Azken batean, gure artean lanak banatzen ditugun familia bat, lan talde bat gara. Beste enprekin halako erlazioak egiten ditugu.

Antolatzen diren sektoreko azoketara joaten zarete?

Bai. Gaur egun mugitu beharra dago. Mundua globalizatuta dago, azkenean dena elkarri lotuta dago. Halako azoketatik ideia gehiegi ekartzen ditugu (barrez). Bidaiek egiten ditugunean, bueltan izaten da: "orain hau eta beste egin behar ditugu". Baina buru hotz jokatu behar da, pixkanaka eta ondo aukeratu zertara bideratu behar dugun enpresa, eta zer komeni den. Argi dago haize boladak hartzen jakin behar dela. Energia berriztagarriak adibide garbia dira. Gu energiari sortu ginen eta energia berriztagarriak 2012an bueltaka hasi ziren azoketan. 2016-2017an energia berriztagarrien saila sortu genuen. Sail horretarako pertsona batzuk jarri genituen, trebatzen. Horren isla da sail horretan gaur egun dau-

kagun lan maila eta ditugun bezeroak.

Lanak egiteko bazkide zarete?

Saiatzen gara, lan guztiak ezin baititugu egin eta espezializazio guztia ezin duzulako izan. Beraz, lankideak egiten ditugu. Esaterako: energiaren eraginkortasunean aritzen den Iruñeko Grupo 3E; Tabar, altzairu herdoilgaitzeko eta soldadura teknikoko instalazioak egiten dituen eta Compresores Redin.

Lan kargarik handiena non?

Instalazio elektrikoak eta mantentzea %50 izanzen da gutxi gorabehera. Beste erdia ingeniari-tzak eta energia berriztagarriek hartzen dute. Sail bakoitzean espezializazioa gero eta gehiago lortzen ari gara. Jendeak prestakuntza hobea izan dezan, horretan gaude.

Ikerketa eta garapena?

Gurea egiten dugu sail guztietan. Horren eredu da Esergy solar, sortu dugun eta hurrengo urteetan bulkatu nahi dugun produktu bat da. Oso interesgarria da. Horri buruz ezin dut asko hitz egin, baina gure produktu bat merkatura aterako da. Hori garatzen ari gara. Eta beti dago buruan zerbait bueltaka.

Adimen artifizialak eragin dizue?

Asko. Gu baino bizkorrago doanaren sentsazioa dut. Zerbait ikasten duzu eta badago zerbait hobea edo beste zerbait egiten duena. Hor gabiltza, lasterketa betean.

Zenbat langile zarete?

40ren bueltan gaude. Bospasei lagun trebatzen dauzkagu. Sakana eta inguruko ikastokietakoak hartzen ditugu.

Nahikoa espazio duzue?

Bai, pabiloi handia dugu.

Nola dago merkaturak?

Gu, momentuz, oso ongi. Egia da inguruan dauden enpresak lan gutxiarekin daudela. Baina, alde batetik, atzeratu zitzaizkien mantentze lanak eta hobekuntzak egiteko baliatzen ari dira. Datorrenera prestatzen ari dira eta, beraz, lana daukagu. Eta energia berriztagarrien sailean lan handia dugu ere. Momentuz ondo. Eta aurreikuspenak onak dira. **Zer ematen du ekonomia sozialeko enpresa izateak?**

Batetik, askatasuna, lanerako konpromisoa eta zure lanaren jabe izatea. Familia bat izatea, eta bai ongi dagoenean bai gaizki dagoenean denak antzeko proportzioan erantzukizuna eta konpromisoa izatea.



"ESERGY SOLAR SORTU DUGU ETA HURRENGO URTEETAN BULKATU NAHI DUGUN PRODUKTU BAT DA"



BEIRA BIRZIKLATUZ, ASKOZ GEHIAGO EGITEN DUZU.



Beira birziklatzen duzunean lehengaien erabilera, energia kontsumoa murrizten eta klima-aldaketa geldiarazten laguntzen duzu.

 **ECOVIDRIO**



Oficina de **Prevención**
de Residuos y de Impulso
a la Economía Circular
Hondakirik **Prebenitzea**
eta Ekonomia Zirkularra
Bultzatzeko Bulegoa

Gobierno de Navarra  Nafarroako
Gobernua



NAVARRA † NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

FESTAK

URDIAN

UZTAILAK 4 ostirala BEZPERA

17:30 Kadeteen VI. Urdian
Saria: 54,5 kilometro, Burunda
Txirrindularitza Taldeak antolatuta.
23:00 Tekno gaua: McFlurry,
Guridi, Apao, Zaze eta I+D, UGAK
antolatuta, gaztetxean (Sarrerak:
5 euro).

UZTAILAK 5 larunbata

12:00 Etxajua eta festen hasiera
Txaranga Txorngok alaituta.
2024. urtean jaiotako hurrei
harrera eta zapien banaketa.
12:15 Haurrendako fantasiako
makillajea, Carla Benitez
makillatzailearen eskutik.
Jolasak herriko erraldoi eta
buruhandekin, plazan.
13:00 Herri kirolen ikuskizuna.
15:00 Kalderete txapelketa, UGAK
antolatuta, futbol zelaian.
16:00 Eskolen mailako
Urdiaingo lasterketa, Burunda
Txirrindularitza Taldeak antolatuta.
18:00 Bidenabar taldearen
kontzertu akustikoa, UGAK
antolatuta, futbol zelaian.
19:30-22:30 Puntu Morea.
20:00-22:00 Trikiteens taldearekin
dantzaldia.
22:00 Herri afaria.
00:30-03:30 Trikiteens taldearekin
dantzaldia.

UZTAILAK 6 igandea

10:30 Ardo banaketa, San Pedroko
hariztian.
11:00 Meza, San Pedro basilizan.

14:30 Bazkariak, San Pedroko
zelaian.
17:00 Zortzikoa.
19:00 Salbea eta herrira itzulera.
20:30-22:30 Xaibor DJa
haurrendako saioa.
22:00 Zezensuzkoa.
Afariak, plazan. Oharra: mahaiak
eta bankuak eskuragarri egongo
dira.
00:00-02:30 Xaibor DJ.

UZTAILAK 7 astelehena

10:00 Gosaria, Tintinurri
elkartea eskainia, Alondegian.
11:00 Hurren bizikleta ginkana,
eliz atarian.
12:00 Meza nagusia.
Ardo banaketa, Alondegian.
12:30-14:00 Fidel Zelairekin
dantzaldia.
14:30 Jubilatuen bazkaria, Fidel
Zelaik alaitua.
15:00 Bazkariak.
17:30 Ilunberriko Txaranga etxez
etxe, udaletxetik.
HAURREN irristaketa ikuskizuna,
plazan.
18:00 Abentura eta soka jokoak,
auzoan.
18:00-20:00 Lentzeria erakusketa,
auzoan.
20:00-22:00 Joselu Anayak
taldearekin dantzaldia.
Ardo banaketa, Alondegian.
22:00 Afariak, plazan. Oharra:
mahaiak eta bankuak eskuragarri
egongo dira.
00:00-03:00 Joselu Anayak
taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 8 asteartea

10:00 Gosaria ehiztariek eskainia,
Alondegian.



URDIAN Bihar hasiko dira San Pedro festak Urdiainen. ARTXIBOA

11:00 Haurrendako egur jolasak
eta haregunea, plazan.
13:00 Etorkizuna dantza taldearen
emanaldia.
Ardo banaketa, Alondegian.
15:00 Bazkaria.
17:30 Txaranga Txorngorekin
etxez etxe, udaletxetik.
18:00 Zirko tailerra, plazan.
18:00-20:00 Lentzeria erakusketa,
auzoan.
20:00-22:00 Ken Bat taldearekin
dantzaldia.
Ardo banaketa, Alondegian.

22:00 Zezensuzkoa.
Afariak, plazan. Oharra: mahaiak
eta bankuak eskuragarri egongo
dira.
00:00-03:00 Ken Bat taldearekin
dantzaldia.

UZTAILAK 9 asteazkena

10:00 Gosaria Aitziber elkarteak
eskainia, Alondegian.
11:00 Entzierro txikia.
12:00-14:00 Ur txirrista eta
txikiendako ur jolasak.

Ardo banaketa, Alondegian.
13:00 Sakana Kantuz.
14:00 Herri bazkaria.
16:00-19:00 Ur txirrista.
17:30 Elektrotxuffa
Elektrotxarangarekin etxez etxe,
plazatik.
18:00-22:00 Lentzeria erakusketa,
auzoan.
20:00-22:00 Andoni Ollokiegi
bakarlaria.
Ardo banaketa, Alondegian.
23:00 Kontzertuak: Kaos Rural,
Mataperros eta La Txama taldeak.





Patxi Arakama eta Euken Perez UGAko kideak, Urdiaingo plazan.

Festetako lehenengo eguna girotzen

Urdiaingo Gazte Asanbladak lehenengo aldiz kalderete lehiaketa antolatu du festetako lehenengo egunean; asanbladako kideek esan dutenez, txupinazoaren ondorengo "hutsunea" betetzeko. Duela zenbait urte antolatzen zen txapelketan oinarritu dira

Erkuden Ruiz Barroso URDIAIN

Ekainaren 29an San Pedro eguna da, eta Urdiaingo festak sailduaren egunaren hurrengo larunbatean hasten dira. Hortaz, aurtan bihar, uztaillak 5, hasiko dira festak, eta igandean egingen dute ermitara erromeria. Urdiaingo Gazte Asanbladak bezpera ere ospatuko du eta gaur, uztaillak 4, ostirala, Tekno gaua antolatu

du, 23:00etatik aurrera. UGAk ere lehenengo aldiz Kalderete txapelketa antolatu du festetako lehenengo egunerako; harekin txupinazoaren ondoren zegoen "hutsunea" bete nahi izan dutela esan dute Euken Perez Ariztizabal eta Patxi Arakama Irigoien gazte asanbladako kideek. "Urtero bezala" festak ospatzeko gooa dute.

"UGAk antolatzen duen lehenengo kalderete lehiaketa da, baina lehen egiten zen. Gogora-

"UGAK ANTOLATZEN DUEN LEHENENGOA DA; LEHEN KALDERETE TXAPELKETA EGITEN ZEN PLAZAN"

tzen naiz txikia nintzenezan plaza antolatzen zutela", azaldu du Perezek. Duela hamar urte baino gehiago egiteari utzi ziotela gaineratu du, "eta larunbata nahiko hutsik geratu zen". Gazteek azaldu dutenez, festak 12:00etan hasten dira eta "iruditzen zitzaigun nahiko triste etxera bazkaltzera joatea edo kuadrillarekin baina norbaiten etxera joatea", beraz, herriarekin batera zerbait egitean pentsatu zuten: "Eta kalderete txapelketa egiten badugu?".

Pentsatu eta egin; bihar, uztaillak 5, larunbata, Elizazpin kalderete txapelketa egingen dute. Zeintzuk izanen dira baldintzak? "Ez dugu ezer ez zehaztu. Patatak haragiarekin eta edozein haragi izan daiteke ere. Gure kuadrillak, esaterako, arkumearekin egin behar du. Baina izan daiteke edozein haragi". Kalderetearen osagaiak "libre" izango dira. Antolakuntzak suak jarriko ditu, Arakamak azaldu bezala: "Kuadrilla bakoitzeko bi su jartzea pentsatu dugu; mahaiak herriarenak izango dira. Antolakuntza aldetik ez du zailtasun handirik". Parte hartzea ere "irekia" izanen dela azaldu dute: "Kuadrillak, familiak, bi edo hiru pertsonako taldeak... Edozeinek parte har dezake; irekia da". Gazte asanbladak suak jarriko ditu, "eta agertzen dena agertzen da". Arakama: "Beti horrela izan da. Suak jartzen ziren, eta nahi zuenak parte hartzen zuen".

Kalderete onena

Gaztai bat eta "koparen bat" izanen da UGAk antolatzen duen lehenengo kalderete txapelketaren saria. Epaimahaia egunean bertan aukeratuko dute: "Hasiera batean pentsatu genuen aurretik hiru pertsona zehaztea,

baina ez dakit beteko dugun", azaldu du Perezek. Egunean bertan mahaiak mahai joanen direla eta pertsona bat aukeratuko dutela gaineratu du. "Azken urtean ere horrela egin zuten", esan du Arakamak.

"Bakoitzaren gustuaren arabera izango da; onenak irabaziko du". Epaimahaia balorazioa egiteko orduan ez du irizipide zehatzik jarraituko, momentuz, behintzat: "Ez da fundamentuzko gauzak bat, eta horrela izatea nahi dugu. Hutsune hori bete nahi genuen; eguerdian zerbait egotea". Kalderete irabazlea egiteko "gogoa" sekreturik hobere-na dela gaineratu dute gazteek.

Festak

Festetarako gogoa dutela esan dute UGAko kideek. Urdiaingo festetako momentu gogokoena-gatik galdetuta, Perezek egunero 20:00etatik 22:00etara herri guztia plazan elkartzen dela aipatu du, "niretako momenturik polita izaten da". Perezendako azken eguna da gogokoena: "Herri guztiak bazkaria egiten dugu eta gero herriari buelta ematen diogu eta plazan bukatzen dugu; nik uste giro handiena dagoen eguna dela".

UGAk aurtan "bakarrik" kalderete txapelketa, ondoren egingen duten mojitada eta Elizondoko Bideabar taldearen kontzertu akustikoa antolatu du. Bestetik, gaurko Tekno gaua antolatu dute; gaztetxean (sarrerak 5 euro).

LEHENENGO EGUNEAN KALDERETEA, MOJITADA ETA KONTZERTUA ANTOLATU DITU UGAK

Taxi
GOIKOETXEA
Ondo pasa festetan!

608 776 154 • ALTSASU

casa rural
Erburu
landaetxea

Gora Urdiaingo festak!

676 06 24 43 • Portuko kale, 14 • URDIAIN
reservas@casaruralerburu.com • casaruralerburu.com

HARATEGIA
Lapua de Guikotzen
CARNICERIA
ETXEAN HAZITAKO TXEKOR HARAGIA

Ongi pasa festetan!

Deitu 948 562 157 | 617 766 536 edo



NAFARROAKO FUTBOL FEDERAZIOA

Futbol Galatik, bost trofeo

FUTBOLA Ekainaren 27an Nafarroako Futbol Federazioak 2024/2025 Gala ospatu zuen Gaiarre Antzokian. Denboraldian txapeldunek kopa jaso zuten. Altsasu Kirol Elkartek hiru trofeo jaso zituen: emakumezkoen preferenteko, gizonezkoen erregionaleko eta areto futboleko gizonenak, Lagun Arteak 2. mailako kadeteena eta Xotak aretoko kadete mailakoa.

Irurtzun, final handira

PILOTA Irurtzun Pilota Klubak Nafarroako Herrien Arteko finala jokatu du uztailearen 13an, 10:00etan, Labriten, finalerdietan Donezteberri 2-1 irabazi eta gero. Laso-Gorraizek kadeteen partida galdu zuten, 11-22, baina Okiñena, Huarte jubenilek (22-3) eta Ongay-Azpiroz juniorrek (22-19) garaipena lortu zuten. Finalean Irurtzunen Leiza izango du aurkari.



NAFARROAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA

Ziordian, kikildu gabe

ATLETISMOA 35 gradurekin jokatu zen XII. Ziordiko Lasterketa Solidarioa, baina 200dik gora partaide animatu ziren. Nagusien proban Arnatz Mujika eta Lucia Garate gailendu ziren. 4.100 euro jaso ziren GNA01 gaixotasuna duen Markel Carmonarendako, 1.100 euro Argonauta Sindromea duen Uxuerendako, eta furgoneta bete Paris 365 jantoki sozialerako.



ZIORDIKO RUNNING TALDEA



Aurten hemeretzi gaztetxok eman dute izena Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Triatloi Campusean.

Triatloi campusekoak Dantzalekura begira

TRIATLOIA Sakanako Mankomunitateak antolatutako Triatloi Campusean parte hartzen ari diren hemeretzi gaztetxoetatik askok bihar Altsasun jokatu den XXIII. Sakanako Haur Triatloian parte hartuko dute

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Astelehenean hasi zen Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Triatloi Campusa, Arbizun. Hemeretzi gaztetxo ari dira igeriketa, txirrindularitza eta korrika batzen dituen kirolean trebatzen, Maalen Beraza Etxarri eta Izaro Ducar Gerrikagoitia monitore dituztela.

Asteartean, egin zuen beroa zela eta, Arbizuko kiroldegian aritu ziren igeriketa lantzen, "berotzar horrekin kalera ateratzea ezinezkoa zelako. Hortaz, igeriketa landu genuen" azaldu du Maalen Berazak. Ordutik, Arbizuko inguruetan bizikletan aritzen dira, atletismoa lantzen dute, eta kiroldegiko igerilekue-

tan igeriketa lantzen dute, kirol batetik bestera egin beharreko trantsizioak eta beste nola egin ikasten. Izan ere, campusean trebatzen ari diren gehienek bihar, larunbata, Altsasuko Dantzaleku igerilekuetan 10:00etatik aurrera jokatu den XXIII. Sakanako Haur Triatloian parte hartuko baitute.

Triatloi campusa uztailearen 11ra arte luzatuko da. Goizero, 10:00etatik 12:30era aritzen dira lanean.

50 triatleta espero dira

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitia azaldu duenez, aurten 50 triatletek eman

dute izena Sakanako Haur Triatloian. Orain arte Urdaingo Aitziber igerilekuetan jokatu zen Sakanako Haur Triatloia, baina Aitziber igerilekuetan obretan daude, legedira egokitzeko lanean, eta igerilekuak beranduago irekiko dira. Horrela, Altsasuko Dantzalekuko igerilekuek hartu dute txapelketa antolatzearen lekukoa.

Gazteek eta kadeteek batera egingo dute proba, 10:00etan abiatuta (400 m igeri, 7.400 m bizikletan eta 2.000 m korrika). 11:05ean haurren txanda izango da (250 m - 5.550 m - 1.600 m), 12:00etan kimuena (200 m - 4.000 m - 800 m), eta 12:40ean benjaminena (100 m - 2.000 m - 400 m).



Triku Trailen makina bat sari banatu zituen bi lasterketetan. Irudian, podiumetako bat. FESTAK.COM



Jon Gil, Motzean bosgarren. FESTAK.COM



Maria Goikoetxea, seigarren. FESTAK.COM

Gorriak eta bi Triku Trailen

MENDI LASTERKETAK Triku Trailen parte hartu zuten 384 korrikalariak ordu bat lehenago irten ziren, beroarengatik. Luzean Xabier Macias eta Maite Etxezarreta gailendu ziren, eta Motzean Iñigo Lasarte eta Guratz Azpiroz. Guztira 87 sakandar aritu ziren

Maidar Betelu Ganboa ETXARRIARANATZ XI. Triku Trail mendi lasterketak ustekabeko nobedadea izan du aurten. Iragarritako berotzarren aurrean, antolakuntzak lasterketa ordubate aurreratzea erabaki zuen. 9:30ak beharrean, 8:30ean abiatu zen lasterketa. "Ostiralean Nafarroako Gobernutik Etxarri Aranazko udalera deitu zuten, iragarritako zeuden tenperatura handien aurrean neurriak hartzeko aholkuak emanaz. Ordurako ibilbide erdian beste mediku bat jartzea erabaki genuen, hau da, bat beharrean bi mediku izatea, eta ibilbidean ur hornidura gehiago jartzea. Probaren ordua aurreratzea gomendatu ziguten gobernutik, eta ongi ikusi genuen. Bete betean asmatu genuen" azaldu du Triku Traileko Igor Artiedak.

Korrikalari eta boluntario guztiei eman zieten ordu aurre-

rapenaren berri. "Posta elektronikoz gain, whatsapp mezua bidali genien guztiei. Eromena izan zen, baina uste dugu inor ez zela jakin gabe geratu. Guri ez zaigu inor kexatzera etorri, are gehiago, ordua aurreratu izana eskertzeraz etorri zitzaizkigun korrikalariak". Horretaz gain, hornidura guneetan ur kubo handiak jarri zituzten, esponjekin, korrikalariak freskatzeko. "Harrera ona izan zuten".

450etik 384

Triku Traileko dortsal guztiak, 450 agortuta zeuden aurretik,

"GIRO EDERRA EGON ZEN TRIKU TRAILLEAN. JENDE ASKO, KANPINA TOPERA"

IGOR ARTIEDA

baina horietatik 384 korrikalari ateratu ziren, 171 korrikalari Triku Trail Luzean (21 km) eta 213 Triku Trail Motzean (10 km). "Iaz antolatua genuen Triku Trail Motza lehenengoz, eta ohiko ibilaldiak baino parte hartze handiagoa du. Gazte sakandar askok erronka gisa hartu dute, eta oso pozik gaude".

Triku Trail ibilbidea "ikusgarri" zegoen. Hasieran ongi, baina beroarekin berehala sufritzen hasi ziren korrikalariak. Ibilbideko eremu askotan boluntarioek ura eskaini zieten, baina beroak ez zuen aparteko bestelako arazorik sortu. "Ohiko bihurrituak, erorketak eta bestelakoak izan ziren, baina, zorionez, ezer larriarik edo berezirik".

Guztira 87 sakandar

Ibilbide Motzak Luzearen lehen 4,5 km-ak eta azken 4,5 km-ak



Edozein laguntza beti ongietorria izaten da.

hartu zituen Etxarriko kanpinaren inguruko paraje zoragarrietan. Lekunberriko Iñigo Lasarte izan zen azkarrena (48:55), Mikel Beunzaren (49:34) eta Andoni Egigurenen (50:07) aurretik. Jon Gil gazte lakuntzarra ikusgarri aritu zen, eta bosgarren sailkatu zen (53:21). Asier Estarriaga, lehen etxarriarra, zazpigarren izan zen (53:46). Emakumezkoetan, Guratz Azpiroz utziarra gailendu zen (1:02:14), Jule Olaizolaren (1:02:51) eta Janire Velascoren (1:04:01) aurretik. Lehen sakandarra Leire Igea etxarriarra izan zen, ema-

"GURETAKO OSO GARRANTZITSUA DA SAKANDARRAK TRIKUN ARITZEA"

IGOR ARTIEDA

kumezkoetan seigarren (1:07:42). 61 sakandarrek osatu zuten Triku Trail Motza, horietatik 25 emakumezkoak.

Ohiko Triku Traila, luzea, Lizarrustiraino iritsi zen. Sufrikario latza pasa behar izan zuten korrikalariak. Xabier Macias iruindarra gailendu zitzaizen (1:53:22) ibilbide guztian segika izan zituen Aimar Otxotekori (1:55:05) eta Iñigo Macias (1:56:50). Ander Galarza urdiaindarra bikain aritu zen eta 25. sailkatu zen, lehen sakandarra (2:17:32). Andoni Goikoetxea lehen etxarriarra izan zen, helmuga 43. (2:27:48). Emakumezkoetan, Maite Etxezarreta azpitiarra izan zen txapeldun handia (2:16:56), Lara Estebanezen (2:17:35) eta Adirene Peñagarikanoren (2:23:59) aurretik. Zazpigarren Eneritz Karasatorre etxarriarra izan zen (2:36:16),

SAKANDARRAK

TRIKU TRAIL (21 KM)

GIZONAK	
1	Xabier Macias 1:53:22
25	Ander Galarza 2:17:32
42	Andoni Azanza 2:27:26
43	Andoni Goikoetxea 2:27:48
47	Joxeja Maiza 2:29:12
48	Jon Mendia 2:31:07
49	Andoni Otamendi 2:31:14
51	Iker Eraso 2:31:38
54	Iosu Urriza 2:33:25
57	Bernardo Garzandia 2:35:13
58	Kepa Gordo 2:36:07
61	Carlos Mañeru 2:36:36
64	Juan Garzandia 2:37:39
73	Ibon Ubeda 2:41:04
93	Mikel Beloki 2:49:19
96	Iñaki Lacalle 2:50:43
107	Roberto Ziordia 2:55:02
125	Jon Igoa 3:06:41
129	Iker Zeberio 3:07:30
135	Ricardo Palacios 3:11:23
143	Sergio Sanca 3:14:51
145	Araitz Jaka 3:16:13
150	Marcos Jose Rocha 3:18:15

EMAKUMEAK

23	Maite Etxezarreta 2:16:56
59	Eneritz Karasatorre 2:36:16
79	Aizea Beraza 2:45:11
86	Maite Urriza 2:45:42
146	Nekane Villarroel 3:16:14



Karasatorre eta Galarza. FESTAK.COM

lehen sakandarra. 26 sakandarrek osatu zuten luzea, horietatik lau emakumezkoak.

Triku Trail, zalantzarik gabe, korrikalari sakandarren festa izan zen, 87 sakandarrek parte hartu baitzuten bi ibilbideetan. Guztia antolatzeke 125 boluntario inguru aritu ziren lanean. Arratsaldeko hiruretarako guztia bilduta zuten, eta Etxarri Aranazko kanpinean bapo bazkaltzera bildu ziren. "Ordua aurreratzearekin batera, biltze lanak ere lehenago bukatu ditugu. Litekeena da

SAKANDARRAK

TRIKU TRAIL MOTZA (10 KM)

GIZONAK	
1	Iñigo Lasarte 48:55
5	Jon Gil 53:21
6	Aitor Martiarena 53:26
7	Asier Estarriaga 53:46
13	Odei Juango 56:10
16	Aimar Araña 58:56
17	Garikoitz Maiza 59:13
23	Oier Aierdi 1:00:34
26	Mattin Altzelai 1:01:24
29	Jokin El Marhoum 1:02:15
30	Aratz Mariñelarena 1:02:19
40	Unai Razkin 1:04:01
42	Adur Bakaikoa 1:04:36
44	Ibai Perez 1:04:52
46	Ibai Arrese 1:06:03
54	Kevin Rai Sanchez 1:07:07
55	Jon Orella 1:07:22
65	Ian Ansotegi 1:08:11
71	Patxi Arakama 1:08:40
73	Antton Igoa 1:08:51
75	Joanes Mikeo 1:09:17
77	Alfredo Estrada 1:10:03
79	Imanol Mendiñueta 1:10:44
84	Pello Altzelai 1:11:55
87	Aritz Irigoien 1:11:57
97	Lier Verdugo 1:12:54
99	Eneriz Vesga 1:13:05
116	Adei Agirre 1:14:41
117	Juan P. Agirre 1:14:41
124	Xabier Agirre 1:16:19
131	Hodei Lakuntza 1:18:01
150	Aratz Mendoza 1:21:52
158	Asier A. de Eulate 1:22:52
178	Andres Etxeberri 1:26:47
191	Iñigo Orella 1:30:25
204	Kimez Arregi 1:36:20
213	Jonatan Rodriguez 1:46:32

EMAKUMEAK

28	Guratz Azpiroz 1:02:14
58	Leire Igea 1:07:42
76	María Goikoetxea 1:09:52
86	Sarabe Arakama 1:11:57
112	Raquel Sanchez 1:14:05
123	Garazi Artieda 1:16:00
125	Zuriñe Argüelles 1:16:26
144	Erkuden S. Martin 1:20:22
146	Eva Aiertza 1:20:59
147	Andrea Razkin 1:21:22
148	Izaskun Igoa 1:21:40
149	Jaione Loban 1:21:40
152	Oihana Ganuza 1:22:14
153	Maite Duran 1:22:17
154	Irune Argüelles 1:22:29
160	Silvia Rodriguez 1:23:25
167	Nerea Martinez 1:24:45
168	Oihana Hualde 1:24:46
177	Leire Palacios 1:26:47
183	Eider Gabirondo 1:28:33
201	Silvia Perez 1:35:46
203	Oihane Rodrigo 1:35:54
205	Ane Escala 1:36:52
206	Leire Maiza 1:36:54
207	Elai Gomez 1:36:54
212	Ariane Atxa 1:46:32

hemendik aurrera ordutegia aurreratzea. Hobeki denondako". Kanpina topera egon zen asteburu osoan.

Selekzioko zortzi sakandarrak, ederki

TXIRRINDULARITZA Granadan jokaturako Espainiako Txirrindularitza Txapelketetan Nafarroako selekzioarekin zortzi sakandar lehiatu ziren. Luca Martinez hirugarren izan zen junior mailako erlojupekoan, eta Iker Gomez bosgarren afizionatuetakoan

M.B.G. SAKANA

Txirrindularitza tropel nagusia Granadan kontzentratu zen aurreko astean, junior mailatik hasita profesional mailara bitarteko Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu baitziren. Nafarroako selekzioak 25 txirrindulari deitu zituen maillot gorria defendatzeko, tartean zortzi sakandar: junior mailako Ane Beltran de Heredia, Ane Berastegi, Ekain Imaz, Luca Martinez eta Ekaitz Perez, eta afizionatuen mailako Iker Gomez, Mikel Uncilla eta Aimar Tadeo. Guztiek lan txukuna egin zuten, Granadako berotzarrari aurre egin.

Luca Martinezen domina

Junior mailatik brontzezko domina iritsi da Sakanara. Erlojupeko proban, Sierra Nevada 8 km- ikusgarri osatu behar izan zituzten txirrindulariek. Gizonezkoetan Benjamin Noval Asturiasko txirrindularia gailendu zen (18:30), Cantabriako Ibai Villateren (19:05) eta Luca Martinez lakuntzarraren (19:23). Ekain Imaz altsasuarra hemezortzigarren sailkatu zen (20:37), 2:07ra. Emakumezkoetan ez zen sakandarrik lehiatu. Nafarroako selekzioko Paula Ostiz txapeladunordea izan zen (22:59), Alejandra Neira (Galicia) txapeladunetik 14 segundora (22:45).

Imazen ihesaldia

Junior mailako errepideko lasterketari dagokienez, gizonezkoek 121,2 km zituzten aurretik, beroak izugarri gogortu zituenak. Ekain Imaz altsasuarrak eraso jo zuen eta 30 segundo atera zizkion tropelari, baina Benjamin Novalek atzetik eraso jo, Imaz harrapatu, eta elkarrekin 2 km inguru egin eta gero, altsasuarra atzean utzi zuen eta garaipen ikusgarria lortu zuen (3:03:56), atzekoei 4 minutu pasa ateraz. Ekain Imaz laugarren sartu zen,



Luca Martinez, eskuinean, dominarekin. NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

MARTINEZEK DOMINA EKARRI DU, ETA IMAZ LAUGARREN ETA GOMEZ BOSGARREN IZAN ZIREN

5:03ra. Luca Martinezek eta Ekaitz Perezek ezin izan zuten proba bukatu.

Ostizen alde

Emakumezkoen juniorrek 85,5 km-ko lasterketa jokatu zuten, bero galantarekin, esprint estuan bukatu zena. Photo Finish-a erabili behar izan zuten garailea nor zen erabakitzeke. Paula Ostiz nafarrak lortu zuen urrezko domina (2:28:29), Irati Aranguren (Euskadi) aurretik. Nafarroako selekzioak Ostizen aldeko lan ederra egin zuen. Ane Beltran de Heredia 32. sailkatu zen, 6 minutura (2:34:29). Ane Berastegik ezin izan zuen proba bukatu.

Iker Gomez Top5a

Afizionatuen mailako gizonezkoek 14 kilometroko erlojupeko jokatu zuten Sierra Nevada,

surik gabeko infernua. 23 urtez azpiko txapelduna Gaztela Manchako Adrian Fajardo izan zen (30:38), Unai Ramos nafarraren (32:06) aurretik. Iker Gomezek erlojupeko bikaina egin zuen eta bosgarren sailkatu zen (32:44). Aimar Tadeo lakuntzarra hemeretzigarren izan zen (35:32). Emakumezkoetan ez zen Sakanako ordezkariarik egon.

Uncilla, lehen nafarra

Afizionatuen mailako gizonezkoek 144,7 kilometroko lasterketa mugitua izan zuten aurretik Granadan. Aurrekoetan bezala, beroa erabakigarria izan zen. Lasterketa mugitua Euskadi selekzioko Yago Agirrek irabazi zuen (3:38:52), eguneko ihesaldian sartu eta Granadako jaitsieran eraso jo eta gero, helmugara bakarrik helduta. Lehen nafarra Mikel Uncilla etxarriarra izan zen, sailkapean hemeretzigarrena, 5:25era. Aimar Tadeok ezin izan zuen lasterketa bukatu.

Afizionatuen emakumezkoetan ez zen ordezkari sakandarrik izan, profesional mailako lasterketetan ezta ere.



KOLABORAZIOA

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

GORA JAI
HERRIKOIAK

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 4

IRURTZUN Antzerkia.

Jazinta la Potra antzezlanaren emanaldia.

19:30ean, Gernika plazan.

LARUNBATA 5

ETXARRI ARANATZ Mendi irteera.

Larrañeta elkartearen mendi irteera: Pirinioak, bi eguneko irteera: Arette – Arlas – Ferial- Kontienda – Belagua.

06:00etan, elkartearen egoitzan.

ALTSASU Triatloia.

Sakanako XXIII. Haur Triatloia: Gazteak, kadeteak, haurrak, kimuak eta benjaminak. Sakanako Mankomunitateak antolatuta.

10:00etan, Dantzaleku igerilekuetan.

ALTSASU Kontzertua.

Mikel & The Mouses blues eta jazz taldearen kontzertua: blues eta jazz



COCOLIARETAPIROGRABADOS.BLOGSPOT.COM/

IRURTZUN Irurtzun Cocoli Aretaren Pirograbatuen erakusketa.
Ekainaren 16tik aurrera. Pikuxar tabernan.

estiloko abesti propioak, baita beste estiloetakoak ere; marrazki bizidunen soinu bandak estiloetara moldatuta. Udako kultur programazioaren barruan.

19:30ean, Foru plazan.

ASTELEHENA 7

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko ikasturteko azken kontzentrazioa.

12:00etan, udaletxearen aurrean.



DUELA 25 URTE...

Arruazu, ubeldeari lotuta

Arruazuko festetan zopa edo txipi-txapa txapelketa jokatu zen ubeldean. Lau bat urte ziren jokatzeko zena, eta adin guztietako arbazuarrek parte hartu zuten. Maria Joakina izan zen atzera ere irabazlea. Festetan, estreinakoz, Ubeldiaren Jeitsiera Txalupaz ospatu zen. Deneriko materialekin egindako dozena bat txalupek parte hartu zuten eta ikuskizun ederra eman zuten.



Er **viti** aluminio
PVC
Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



Ignacio Maria Lazkoz Goñi

'Boli'

Zuk landatutako arbolen itzalpean euskara hazi eta zabalduko da.



Andra Mari Ikastolako guraso, langile eta ikasleak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.


Jarri zure iragarki laburra!

iragarkiak@guaixe.eus




EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 4




Larunbata, 5



Igandea, 6



Astelehena, 7



IRAGARKI SAILKATUAK

GALDUTAKOAK
Pitti katua galdu da **Etxarri Aranatz**: Burreina kalean bizi da eta etxetik maiatzaren 27tik falta da, gris kolorekoa, oinak txuriak, mikrotxipa darama lepoan eta esterilizatua dago. Katuaren argazkia www.guaixe.eus/iragarkiak/ loturan. Ikusi baduzue, mesedez, 627 139 661 telefonora deitzea eskertuko genizuke.

OPARITUTAKOAK

Bi arratoi-txakur kume oparitzen dira **Etxarri Aranatz**: Interesa baduzu deitu 699 780 772 telefonora.

IKASTAROA
Ergoienako Udalak datorren ikasturterako ikastaroetan izen ematea zabaldu du: Yoga, hipopresiboak eta eskulan tailerra ikastaroak antolatu ditu. Ordutegiak, baldintzak eta izena emateko udalarekin harremanetan jarri.

OHARRA
Etxarri Aranazko abesbatza txikian izena emateko epea zabalik: 6 - 15 urte bitarteko haur eta gazteentzat.

Udan ere Mintzakide: Udan ere mintzataldeak osatuko ditu AEK-k, dohainik dira, animatu!!
AEK-k euskaldun bat behar du Sakanan udan beste euskaldun batzuekin euskaraz aritzeko, deitu 600 482 024 telefonora.

Uharte Arakilgo Udalak herriko kultura, kirol eta gizarte entitateei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du: Deialdiaren oinarriak www.uhartearakil.eus web orrian.

Uharte Arakilen haurrendako udako aisialdi programan izena emateko epea zabalik: Udan Euskaraz oportetako euskararen amasgunea eskaintza prestatu du. Informazioa Udaletxean.

Etxarri Aranazko Udalak herriko entitateei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin du: kultur, kirol eta jendarte entitateei dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu du. Informazio gehiago www.etxarriaranatz.eus web orrian.

Altsasuko Udalak irabazi asmorik gabeko entitateendako laguntzen deialdia zabaldu du: Deialdiaren oinarriak www.altsasu.net web orrian.

Olatzin Udan Euskaraz kanpainan izen emateko epea zabalik: Garagarriaren 23tik garriaren 18ra izanen da, Lehen hezkuntzako haurrentzat. Informazio gehiago Olatziko udalarekin edota 948 012 012 telefonora deituz.

Iturmendin mintzakide taldea sortu dute: Ostegun arratsaldetan, kafetegian bildu eta euskaraz hitz egiteko. iragarki@guaixe.eus www.iragarkilaburra.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Astearteko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko astearteko 13:00ra arte.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📍 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

Ekainaren 30etik uztailaren 6ra Ixabel Agirresarobe Eginoko mojen konbentuan egonaldia egiten ari da. Udalbiltzaren Geuretik sortuak programaren hirugarren edizioaren barruan egiten duen hirugarren eta azken egonaldia izanen da, maiatzaren hasieran Araian eta maiatzaren 26tik 30era Ziordian egon ondoren.

Nola sortu zitzaizun programan parte hartzeko aukera?

Proiektu honen berri sortuzenean izan nuen, baina ez nuen nire burua horrelako proiektu batean ikusten, gehienbat egonaldiak eskatzen zituelako. Ez zen ez zitzaizkidalako gustatzen, baizik eta gauza handia bezala ikusten nuelako. Baditut parte hartu duten lagunak, eta haien esperientzia entzun eta gero animatu nintzen. Gainera, ekitaldi honen edizio berria proposatu zutenean nire herrian, Usurbilen, agerraldi moduko bat egon zen eta bertan parte hartu zuten sortzaileak eta udalerrietako ordezkariak eta abar egon ziren. Beraien kontuak entzun nituen eta pentsatu nuen: "Hau da tentazioa hau! Botako dut proposamena!". Denak animatu ninduten. Egia da gero proiektua onartu behar zutela. Zorionez onartu zuten, eta hementxe nago; saltsa honetan.

Zein zen zure proposamena?

Errekak gaia hartu nuen; errekak eta horren inguruan herri baikoitzean ea zer dagoen. Idazlan bat osatu behar dut, eta erreka aitzakia bat izan da.

Asparrena eta Ziordia. Zergatik herri horietan?

Hori da gauza polit bat. Nire proiektua aurkeztu nuenean ezin nuen eskatu zein herrian egin. Hori Udalbiltzak erabakitzen du, eta pentsatzen dut herriak ere ez zekiela zer sortzaile etorriko ziren. Orduan, jolas moduko bat izan zen. Aukera hau biziagoa dela iruditzen zait.

Zer egin duzu?

Testigantzak jaso ditu, baita nik proposamenak eskainiere. Proiektuak hori eskatzen du; egonaldi horretan herriarentzat edo herriarekin gauzak egitea, eta egin ditugu.

Zer moduzko harrera izan zenue Ziordian?

Herriak oso ondo hartu ninduen. Kuadrillak ezagutu nituen; gizonetako kuadrillak, mordo bat direla, eta bi emakume talderekin

"Ziordiak oso ondo hartu ninduen; herri bizia da"

IXABEL AGIRRESAROBE AKTORE ETA IPUIN KONTALARIA

Maiatzaren 26tik 30era Udalbiltzaren 'Geuretik sortuak' egitasmoaren sormen egonaldia egin zuen Ziordian; egunotan Eginon dago



Ixabel Agirresarobe Ziordian.

elkartu nintzen ere. Oso herri bizia da Ziordia. Gizonak elkarrean topatzen nituen, ordu jakin batean azaldu nintzen nire koarderno eta boligrafoarekin, eta bazekiten norbait azalduko zela. Oso ondo hartu ninduten. Beraien kontuak entzun nituen. Elkarrean berean, baina beste sektore batean, emakumeak zeuden eta beste kontu batzuk esan zizkidaten. Beste egun batean herriko jostun talde bat osatzen duten emakumeekin elkartu nintzen, eta haiekin ere egon nintzen eta haiek ere zoragarri hartu ninduten. Batek esan zidan: "Ez dut asko josi gaur, baina ez dut pena handirik. Kontuak esaten oso gustura ibili naiz". Ludotekan ere egon nintzen. Haiekin ez zen bakarrik istorioak entzun, baizik eta ekintza bat proposatu nien eta segituan jarri ziren ekintza horretan; erreka zen protagonista. Gauza politak izan ziren.

Horrelakoa izatea espero zenue?

Proiektua bera irekia zenez, etorri nintzen ea zer aurkitzen nuen ikustera. Nik proposamenak nituen, baina nola erantzun zuten? Auskalo. Hemen ikusi dudana da norberak zerbait es-

"NORBERAK ZERBAIT ESKAINTZEN DIO HERRIARI; PERTSONA BERAK GARRANTZIA DAUKA"

kaintzen diola herriari; pertsona berak garrantzia dauka. Oso gustura pasatzen ditut orduak eta orduak jendearekin, eta nik uste jendea nirekin eroso egon dela. Ezezkoak jasotzeko prest etorri nintzen ere. Udalak lan handia egin zuen eta denak abisatuta zeuden. Oso ondo joan da.

Nolakoa da egonaldi egun bat?

Eguraldiak asko markatu du. Lehenengo aldian egon nintzenean fresko eta ihintzaldia zegoen. Izugarri gustatzen zait eguraldi hori. Sira hartu, eta ibilaldiak egiten hasten nintzen. Herriak ez nituen asko ezagutzen, eta inguruko herriak oinez ezagutu nituen. Goizean batez ere ibilaldiak egiten nituen, otordua prestatuta egoten zen eta hori gauzarik hoberenetarikoa izan da; pisu gehiagorekin itzuli nintzen etxera. Arratsaldean ekintzak egiten nituen: hitz egitekoak, jolas tokikoak... Afari moduko bat, apunteak hartu, nolabait asimilatu eta horrelako gogoaz bazegoen zerbait idazten jartzen nintzen. Egia esan, bertan lo egite horrek pila bat errazten du. Edozein ordutan dela hor zaude, beste herritar baten gisa. **Ziordia aurretik ezagutzen zenue?** Bai. Baina ez da berdina lanera etortzea edo egonaldi bat egitea. Ziordian oso oroitzapen ona dauka. Kale antzerkia egiten genuenean montaje batekin etorri ginen, duela urte pila bateko festetan (oso txarra naiz zenbakietarako), eta antzerkia egin ondoren dena jasotzen ari ginenean giroa oso-oso beroa zegoen. Ez dakit zer gertatu zen, protestak zeuden, polizia... Eta gu, haurren aurrean, traste guztiak hartzen ari ginela, bat-batean berdeak agertu ziren. Hau da festa! Bero-bero etorri ziren, eta festetako giroak ere badakigu zer sor zezakeen. Zorionez nahiko apal bukatu zen, baina antzerkiko kideek esan genuen: guk hemen bizi nahi dugu! Herri bizia zen, eta etorri naizenean konturatu naiz herriak bizitza daukala.

Zein da hurrengo urratsa?

Orain dator nire lana. Idazlana hasita dago, kendu eta jarri asko egiten ari naiz. Eginon mojen konbentuan nago eta ez daukat distrakzio gehiegi eta zentratzeko behar dut. Aste honetan aprobetxatuko dudala iruditzen zait. Hor ez da bukatzen, Udalbiltzak aholkulari bat jartzen du, eta zerbait txukuna eginda bidali nahi diot.



Gorka Arbizu, Iturmendiko pabiloian, 1923ko Ford T-aren ondoan, alboan R5 Turboa duela.

"Autoen atzean dauden historiak ditut gustuko"

Auto eta motor klasiko eta historikoak dira Gorka Arbizu Escudero iturmendiarraren zaletasuna. Pabiloian 27tik gora ditu, R5 Turbo ugari, Alpine-ak, Clio Williams-a, Seat 600a eta 1923ko Ford T-a, Nafarroan martxan dagoen autorik zaharrena

Maidar Betelu Ganboa ITURMENDI

1 Noiztik klasikoen zale?

14 urte nituela erreka batean botata utzitako Mobilette motor zaharra topatu eta zaharberritu nuen. Motorra nahi nuela? Ba konpontzen ikasi beharra nuen: diru falta. Lehena motorrak, eta gida baimena aterata autoak izan ziren. Engantxatu nintzen.

2 Pabiloia betea duzu: autoak, motorrak, ordezeko piezak...

Tokirik gabe geratu naiz. Ia egunero etortzen naiz, musika jarri, eta gustura egoten naiz. Auto asko oso baldintza txarretan erosi nituen, merke. Orduan inork ez zituen nahi, eta goitik behera berrituta, orain balio asko dute. Kapritxoa dira, baina, aldi berean, inbertsioa. Niri ez zait dirua

bankuan izatea gustatzen, nik dirua hemen dut. Lehen soldatekin pabiloia egin nuen.

3 Renault ugari dituzu: R5 Turboak, Alpine-ak, Clio Williams-a...

Etxean beti izan ditugu Renault-ak, eta gustuko ditut. R5 Turboak bereziak dira, Sakanan zale asko gaude. 19 urterekin Iturmendiko R5 Turbo beltz bat

erosi nuen, gero beste bat, eta beste bat... R5 GT Turbo Rally gorria da baliotsuena. 2006an erosi nuen, Frantzian. Lagunek Audi A3ak erosten zituztenean nik hau ekarri nuen. Bere garaian oso ale gutxi egin zituztenez, egun oso baliotsua da. Prezioaren aldetik, koroaren altxorra da.

4 Ford T-a oso berezia da.

Ford T kate lanean egin zen lehen autoa izan zen. 1908an hasi ziren egiten, eta hau ia azkenetakoa da. 1923ko maiatzaren 25ean erosi zuen Tuterako batek. Aurretik arrankatzen da, gurpilak zurezkoak dira, eta barruko egitura guztia baita ere. Nafarroan martxan dagoen autorik zaharrena da, eta matrikulagatik eta atzean duen historiagatik hartu nuen. Ez nuen erosi: R5 Turbo batekin trukea egin nuen duela 3 urte. Bartzelonan zegoen, bertan 60 urte egon zen, bizi erdia baino gehiago.

5 Nola zegoen?

Itxura aldetik dagoen bezala. Bere garaian zaharberrituko zuten, ziurrenik. Mekanika aldetik konpondu nuen, urte asko egon zelako geldirik. AEB-etatik pieza batzuk ekarri nituen. Autoen kultura handia dago, ordezeko pieza guztiak izaten dituzte.

6 Bere historia ikertu duzu?

Bai, bospasei goiz eman nituen Nafarroako Artxibategian. Tuterako batek erosi zuen, gero Tuterako beste bati saldu zion, eta ondoren Cabanillasko markesa batek erosi zuen. Handik Bartzelonara joan zen. Polita da historia jakitea. Historia lana gustuko dut. Nafarroako Artxibategitik Nafarroako lehendabi-

ziko 2.000 matrikulen zerrenda ateratu dut, ikertzeko.

7 Ford T-a ongi ibiltzen da?

Bai, normal. Larunbatean Araiara eraman nuen, topaketa batera, eta Bakaikuko Katxarro Egutera eraman nuen. Bi abiadura ditu, eta 54 km-ko abiadura jarri nuen. ITV, aseguru eta zirkulazio zerga ditu indarrean.

8 Auto guztiak araudian izatea ezinezkoa izango da, diruaren-gatik.

Oso haserre nago. Estatu mailan klasikoaren legea egin dute, hala-ko autoak babesteko erraztasunak emanez. Legearen arabera, 30 urte baino gehiago dituzten autoek ez dute zirkulazio zerga ordaindu behar, baina Nafarroako zenbait udalerritan zergak kobratzen dizkigute. Lotsagarria da. Horregatik, bi Alpineak, Ford T-a, R5 Turbo gorria eta beste bat izan ezik, gainontzekoak bajan ditut.

9 Zure zaletasunaz, zer diote?

Ez dakit, baina ziur nago duela 10-20 urte askok narkotrafikantea nintzela pentsatuko zutela, auto deigarrien atzean trapitxeroak daudela uste baita. Ferraria oso gustuko dut, baina halako bat ekarriko banu, pentsa!

10 Beste autoreen bat begiz jota al duzu?

Peugeot 205 GTI bat gustura ekarriko nuke. Garesti daude. Trukea egitea proposatu diot nire R5 GT Turbo bat nahi duen bati.

11 Zure zaletasunak segida izango du?

Semeari gustatzen zaio, baina oraindik txikia da.

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabeteen euro baten truke
Urteko bazkidetza 60€



Izena
Abizenak
NA/IFZ
Helbidea
Herria
Telefono zenbakia
Emaila
Bankuko kontu korronte zenbakia:
ES _ _ _ _ _



guaixe
fundazioa

948 564 275
618 882 675
admin@guaixe.eus

